


# Ahizpatasuna



JUNE FERNANDEZ  
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

**D**esboteretu egin nauzu”, bota zidan behin nire editore lana ondo hartu ez zuen kolaboratzaile batek erreportajea goitik behera orraztua ikusi zuenean. Kazetaritza masterreko gizonetzko zuzendariari iritzia eskatu zion eta hark zuzenketekin bat egin zuen. Orduan, nigana itzuli zen barkamen eske. Nork desboteretu zuen nor?

Azken asteotan euskal sare sozialetako bazterrak harrotu dituen eztabaidak pasadizo hau ekarri dit gogora. Iruñean hirugarren aldiz ospatuko da Letraheridas literatura feminista jaialdia eta, hirugarren aldiz, gonbidatuen artean idazle euskaldunik ez dagoela kritikatu dute Kattalin Miner idazleak eta Uxue Razquin editoreak. Antolatzaileak kargu hartu die jaialdiko Instagrameko kontutik, esanez haren lana publikoki zalantzan jartzea ez dela batere feminista eta sare sozialetan elkar zaindu beharko genukeela. Aurreko pasadizoan nola, kritikak neutralizatzeko feminismoaren erabilera ikusi dut nik. Miner eta Razquinen iruzkinak “maitasunezko interpelazioak” (Saioa Iraolak Guatemalan ikasi zuen kontzeptu ederra) iruditu zitzaizkidan: biek nabarmendu zuten jaialdiaren erakargarritasuna, maila altua eta parte hartzeko nahia.

Paradoxa da antolatzailearen purrustada bai, izan dela oldarkorra, bere burua biktima gisa aurkeztu badu ere. Kritikaren zilegitasuna onartu ordez, programatzaile gisa duen askatasuna aldarrikatu du (Lucia Baskaranek erantzun du emakume gabeko ekitaldia antolatu duen *señoro* baten neurriko argudioa dela), euskaraz irakurtzeko hizkuntza gaitasunik ez duela azaldu du (ondoren Uxue Alberdi, Eider Rodriguez eta Katixa Agirre gaztelaniara itzuliak irakurri dituela onartu badu ere) eta gaineratu du zaila dela asmatzea euskara gaztelaniazko ekitaldi batean nola txertatu.

Edonola ere, ahizpatasunaren kontzeptuari buruzko eztabaida intersektionala aletzeko balio dezake gertatutakoak. Terminoa Kate Millet idazle estatubatuar zuriak erabili zuen emakumeen batasunaren alde egiteko, “klase sozialen edo jatorri etnikoaren arabera bereizketarik gabe”. Latinoameriketara eta Espainiako Estatuan Marcela Lagarde antropologo mexikarraren sororitatearen interpretazioa erroto da: “Feminismoan aurkitzen eta aitortzen diren emakume ezberdinen eta parekoen arteko adiskidetasuna”.

Haatik, afrofeminismoak, lesbofeminismoak, transfeminismoak eta feminis-

mo marxistak, besteak beste, kritikatu egin dituzte diskurtso horiek, klase/arraza/sexualitate eta bestelako zapalkuntzen bortxa gutxiesten dituztelako. Bestela esanda, emakume guztien batasunaz eta adiskidetasunaz hitz egiten diguten feministen pribilegioak eta diskriminazio praktikak seinatatu dituzte. Letraheridasen kasuan, hegemonia linguistikoa.

Hamaika adibide aipa ditzakegu. Lesbofeministek parte hartu dute abortatzeko eskubidearen aldeko borrokan, baina haien sexu eta ugaltze eskubideak ez daude agenda feministaren erdigunean. Feminista arrazializatuak kalera atera ziren Sanferminetako bortxaketaren biktimari elkartasuna adierazteko, baina oso jende gutxi parte hartu zuen Huelvako marrubi-biltzaileen aldeko elkarretarazteetan. Halaber, ingelesezko lelo transfeminista batek dio “*Support your sisters, not only your cis-ters*” (hitz jokoa, “babestu zure ahizpak, ez bakarrik zis-ahizpak”).

Badakit zaila dela maitasunezko interpelazio horiek ondo hartzea proiektu batean gure ilusio eta indar guztia jarri dugunean, baina benetako ahizpatasunerantz aurrera egiteko modu bakarra dugu. ●